

Bideoaren erabilera hizkuntz klasean

Paul Meniss

Bideoaz baliatzeko aukera duen hizkuntz irakasleak hizkuntza bere ikasleei giro bizi-bizian azaltzeko egokiera ezin hobe dauka. Bideoaren bitartez hizkuntza horri dagokion mundua jar diezaieke begien aurrean. Horrela, izan ere, ikasi dituzten hitzak eta esaldiak dagokien modu eta testuinguruan entzuteaz gain, hizketarekin eta esanahiarekin hain loturik dauden aurpegiko keinuak eta gorputz eta eskuen mugimenduak ere ikusiko bait dituzte.

1. TEORIA APUR BAT

Nolanahi ere, irakasleak, lehenengo bideozko irakasgaiari ekin aurretik, tresneria erabiltzerakoan sortzen den zenbait gorabehera kontuan hartu beharko luke.

1.1. Bideoa ez da ahozko ulermena (entzumena) zuzenean lantzeko modurik egokiena

Bideoa martxan jarri eta gelditzera koan, irudia azaldu edo izkutatu aurretik, zintaren zatitxo bat bildu edo askatzen da; hau dela eta, oso zail izaten da zenbait esaldi motz entzuten edo, oraindik okerragoa dena, hitz bat edo beste ez da ondo aditzen.

1.2. Ikusizko irudiak esaten du dena

Kontuan hartzekoa da ikasleak kasetarekin ari direnean, zinta behin eta

berriaz entzuteko prest egongo direla, harik eta gramatikako puntu berriak edo hiztegia ematen dituzten zatiak ulertu arte; ez dute, ordea, horretarako motibaziorik izango irudiak ikusizkoak direnean, hasiera-hasieratik jasoko bait dute ikuskizunaren %90a. Horregatik, irudi horiek berriaz ikustea oso aspergarri gertatzen zaie eta material bera ez da erraz bi aldiz erabiltzen.

1.3. Ikusizko irudiak «adia kentzen du»

Geure ama-hizkuntzako programak ikusten ditugunean ere, askotan gertatzen da istorioaz ondo jabetzeko hainbat ikusizko informazio jasotzen dugula eta, ondorioz, ez diegula hotsei hainbesteko arretarik jarri behar izaten. Jarrera hau areagotu egiten da soinuak beste hizkuntza batean ematen denean, ikasleek ikusizko irudiari adi egotera joko bait dute, soinuak sortzen dizkien ulermen-arazoak saihesteko. Irakasleak, beraz, tentuz erabili beharko lituzke irudi liluragarriegiz hornitutako filmeak. Kontuan hartu beharko luke askotan, albiste emanaldietan, besteak beste, irudiek ez dutela zerikusi handirik soinu-bandarekin. Ikasleek ohi den baino gehiago ulertzen dutela aurkituko balu, informazioa nondik datorkien aztertu beharko luke, hots, ia soinu-banda ulertuz jaso ote duten ala ikusizko irudia dela medio ote datorkien.

1.4. Telebistaren aurrean egotea egoera pasiboa da jeneralean

Ez dugu harritu behar ikasleek zenbait ariketa eta oro har bideoaren bitarteko lana oso gustukoa ez dutela ikusirik. Gogora dezagun normalean etxean telebista ikustea egoera pasiboa dela eta, ikasleak agian, bideo komertzialek ematen dituzten ikastaro askotan gertatzen den bezala, pantailan azaltzen den irakasle baten mendean errepikarik ez direla erraz-erraz ohituko. Ikasleei, beraz, medio berrira jartzeko beta eman behar zaie, horrela hizkuntzak ikasteko baliabidetzat har dezaten, magnetofonoarekin egiten duten legez.

1.5. Ikasleek agian iritzi finkoak izango dituzte telebista ikusteari buruz

Ez dezagun pentsa telebistaz ikusita-koaren bidez ikasteak ikasleak ikaragarri liluratuko dituenik. Oso tentuz ibiliz gero, lortuko da hori agian; baina kontuan hartu behar da ikaslerik gehienek etxean daukatela telebista eta zenbaitso horrek aski asperturik edukiko dituela. Beharbada, horrelako asperraldiei ihes egiteko hasia izango da baten bat hizkuntza ikasten. Irakasleak, era berean, topo egin dezake erabat bestelako ikasleren batekin. Honi umekeria edo pulamenturik gabeko zerbait irudituko zaio agian gauzaren bat edo beste edota azaltzen zaion guztia ikustea eta bere gustuko telesailen neurrietara iristen ez diren programei begira egotea.

2. BIDEOZKO LEHEN IRAKASAIORAKO GIROA PRESTATZEN

Aipatu berri ditugun mugakuntza eta jarrerak emango digute bideoa klasean erabiltzeko ikuspegia.

2.1. Soinu-banda

Soinu-bandak dakartzan problemei aurre egin beharko genieke lehenbizi.

Horretarako soinua kasete batean grabatu beharko litzateke, edozein magnetofonotan erabili ahal izateko moduan. Horrela, egokiago baliatuko gara eskuarteko materialez, zenbait hitz eta esaldiren zailtasunak begien bistan jartzeko gauza diren teknologien bitartez; eta ondo osatuko dugu edukiz geure eguneroko irakaslana, zintako hiztegia, esamoldeak eta gramatika landuz, ulermen-galderak eginez eta transkripzioen bitartez. Guzti honek izan dezake ikasleak motibatze indar galanta; izan ere, ikasi duten hizkuntza bideoko testuinguruan entzutean, ziur egongo bait dira lortu duten hura berezko hitzunik egunero erabiltzen duten hizkera bera dela eta ez testu-liburuetako hizkera hutsa, hauek aurkeztutako egoeretarako bakarrik balio duena.

Hau guztia egiteko tresneria arras sinplea da: bideo-kasetetik magnetofonora soinu-seinalea eramango duen hari bat besterik ez da behar.

2.2. Irudia

Soinu-bandak sortzen dituen arazoak gainditzeko prestakuntza arretatsueta-rik abiatuz, bide onetik dabil irakaslea bigarren korapiloa askatzeko, hau da, ikusizko irudiaren errepikak dakarren behaztopa gainditzeko. Izan ere, ikasleek soinu-bandako arazo guztiak gainditu dituztenean izango dute hitzaren, soinuaren eta irudiaren arteko loturaz baliatzeko aukera; eta ez dute horretarako bideo-zintaren zatiak behin eta berriz ikusten aritu beharrik izango. Eta guzti honek berezko hitzunaren esperientziara hurbilduko ditu; berezko hitzunak ia oharkabean lotzen bait dizkio elkarri hitza eta irudia.

Irakasleak, ezinbestean, ikasleek aurrez ikusi gabeko materiala erabili beharko balu, arazo hori konpontzeko nahikoa izango du irudia erabat kendu eta martxan soinu-banda bakarrik uztea.

Azkenik, ikasleei egin eraziko zaizkien ariketak bideoa ikusi aurretik zein

gero egiteko modukoak izango dira, ez bait dago pentsatzerik ikasleak pantailan ikusten duen bi neurriko lagunaren aginduak beteko dituenik.

2.3. Zenbait ohar

Sor daitekeen edozein arazo tekniko edo praktiko lehen ikasaioa baino lehenagotik bideratu behar da. Hona kontuan hartu beharreko zenbait gorabehera:

- Tresneria osoak ondo funtzionatzen duen.
- Ilun al daiteke bideoa egongo deneko gela? Horrela ez balitz, argiak eta eguzkiaren errainua pantailan isladatzen al dira?
- Irakasleak erabiliko dituen sekuentziak zintaren hainbat zatitatik edo zinta bat baino gehiagotatik hartuak baldin badira, zinta bakar batean montatu behar dira, lan horretan aritzen den etxeren baten bidez edo beste bideogailuren bat erabiliz. Azken hau lehenengoari konektatuko zaio horretarako kable baten bitartez.
- Irakasleak kontagailuko zenbakiak gogoan edo paperean jaso beharko ditu, nahi dituen sekuentziak erraz aurkitu ahal izateko.
- Urrutiko kontrolgailurik baldin badu, erabil beza. Horrela, irakaslea ikasleen artean eserita egongo da ikasgaia ari den bitartean, eta ez du bideogailuaren botoiak mugitzeko altxatzen ibili beharrik izango. Honela profesionaltasun-giroa emango zaio ikasaioari eta ikasleek ez dute adia edo edukiaren haria galduko.
- Irakasleak ez beza ahaz, azkenik, tresneria desmitifikatu egin behar dela ikasleen aurrean. Nola funtzionatzen duen eta irudiak aurkitzeko zer egin behar den azalduko die, irudiak abiadura handian ibiltzeak sortzen dituen barregu-reak hasiera-hasieratik baztertzeko.

3. BIDEOZKO LEHEN IRAKASAIOA

Hemen eskaintzen dugun formatoa telebistan grabatutako edo hizkuntz ikastaro komertzialetako dokumentu benetakoen zatiz osa daiteke. Sei une ditu eta ikasleak bideozko materialen mundura eramateko bide posible bat da.

1.unea

«Saldu ikasleei bideoaren esperientzia». Azpimarratu hau, bideoarena, benetako mundua eta ikasten ari diren hizkuntzaren testuingurua klasean ahalik eta hurbilen edukitzeko aukera ederra dela. Adierazi horretarako (ikasi duten hizkuntzaren bidez zerbait ulertu eta gozatzeko gauza izateko) aritu direla prestatzen seguraski.

2.unea

Eman ordu-erdiko istoria edo dokumentala eta gero banatu ikasleei galde-sorta. Honelakoa izan daiteke:

- Zure ustez, prestatu al zaitu klaseak zinezko telebista-programetako hizkuntzari aurre egiteko?
- Hizkuntzaren, kulturaren eta abarren zein alderdi falta duzula nabaritu duzu, programa hobeto ulertzeko eta gehiago gozatzeko?
- Programak adierazi al dizu hizkuntzaren alorren batean motz samar zaudela?
- Programa ikusi ondoren, zerk izango luke, zure ustez, lehentasuna hurrenez hurren: esamoldeak, gramatikak, ahozko ulermenak, ahoskerak, ahozko adierazpenak, kulturak, parahizkuntzak, idatziazen ulermenak, idatzizko adierazpenak, azentuak, dialektoak...?
- Ondo al deritzozu bideo gehiago ikusteari?
- Nola lagunduko dizu bideoak hizkuntza ikasteko?

Galdera hauen ondorioz sortuko den eztabaidan ikasleek azentzuak, kultur desberdintasunak, hizketako abiadura, hiztegia, esamoldeak, estiloa, musika eta zintako burrunda, zalantzak eta ulertzeko izan dituzten antzeko trabak aipatuko dituzte. Zenbait alderdi paralinguistikok ere (iragarkietako hitz eta testuek, jazkerak, etab.) nahastu egingo zituzten edo harritu, eta galderak egin nahiko dituzte.

Normala izango da ikasleak alor horiek lantzeko prest egotea orain, gero pozgarria eta betegarriago izango den beste bideo-emanaldi bat ikusteko itxaropenez.

3.unea

Presta bedi aipatu berri diren puntuak lantzeko entzunaldi eta ikastaldi bat. Benetako bideoetatik ateratako soinu-bandez baliaturik, ikasleak taldeka lanean jarriko dira, magnetofonoaz dialektuak edo elkarrizketak, burrunda, musika eta guzti lantzen. Konpara bedi entzutezko benetako material hau ohizko testu liburuetatik hartutakoarekin.

4.unea

Bideoak hizkuntza ikasteko ematen dituen aukera guztiak ustiratu. Eman ikasleei bideoan ikusi eta entzungo dutena eztabaidatzerakoan beharko duten hainbat hizkuntz elementu; esate baterako, «ikuskitzei», «zineari», «telebistari» eta abarri buruzko hiztegia. Ez da alferrikako lana izango, hori dena sendogarri gertatuko zaie ikasleei eta hurrengo bideo-emanaldietan erabiliko dute.

5.unea

Bideozko bigarren ikasgaia emango da orain. Ez espero izan ikasleengan aldaketa funtsezkorik gertatu denik, baina errazago ulertuko dute soinu-banda eta trebatuagoak egongo dira zailtasunak gainditzeko.

6.unea

Bideozko ikastaro sistematikoa sustatu, tresna hori gutxienez astean behin erabiliz eta osagarri gisa magnetofonoaren bitartez soinu-banda klasean landuz.

4. OINARRIZKO IDEIA ETA TEKNIKA BATZU

1. Irudiak gelditu, eszenak eta izakerak deskribatzeko.
2. Telebistari hotsa kendu eta jaso magnetofonoaz ikasleek irudiak ikusten ari diren bitartean esaten dutena. Gero pareka daiteke ikasleek esandakoa eta berez zintan dauden hitzak.
3. Irudiak kendu eta ikasleek beregin ditzatela soinu-bandari dagozkion irudiak.
4. Irudiak azkar-azkar pasatu piska batean eta gero gogoan dauzkaten guztiak deskriba ditzatela ikasleek.
5. «Puzle bideoa»: ikastaldea bitan banatu eta talde batek irudiak ikusiko ditu eta besteak hotsak entzungo, irudirik ikusteke. Gero bi taldeak elkartuko dira eta, bikoteak eginez, bataren irudiak bestearen hotsei lotzea izango da eginbeharrekoa.
6. Sekuentzia motz batzutan zenbait irudi kendu edo beste ordena batean moldatu. Ikasleek berezko ordenean jarri beharko dituzte edo tartean falta direnak asmatu.
7. Erabili dokumentalak eztabaiden bizgarri.
8. Erabili ama-hizkuntzan azpitolak dituen materiala, soinua kenduta. Ikasleek soinu-bandan esaten dena asmatu behar dute.
9. Erabili gai jakin bati buruzko dokumentalen bat, pertsonaia ondo definituak azaltzen dituen. Gero ikasleen artean banatu

pertsonaia horien rola, beren izakera eta hizkera ondo esplikatuz. Hori egindakoan zinta ikusiko da, eztabaidan dagoen gaiari eta beren rolei buruz informazio gehiago bil dezaten. Ondoren eztabaidaren rol-jokoa egingo da.

10. Aurrez soinu-bandaren prestakuntzarik egin gabe, azaldu ikasleei bideoa, soinua kenduta. Esan dezatela soinu-bandako hiztegia zein izango dela uste duten. Gero soinua entzungo dute, hitzik garrantzitsuenen zerrenda egiteko. Ondoren, hitz-giltzez baliatuz, soinu-bandako ideia nagusiak bilduko dituzte.

Azkenik, beren bertsioa soinu-bandaren transkripzioarekin konparatuko dute.

11. Egin ditzatela ikasleek ikusitako programen laburpen eta kritikak.

Azken gogoeta bat: bideoaren bidez zernahi egiten delarik ere, beti bilatu behar dira material eusgarriak, hala nola, egunkarietako programa-erreferentziak, filmeen oinarri izan diren liburuak, artikulua, etab. Horrela bideozko ikasiala ez da pasadisuko berrikeria hutsa izango, hizkuntz ikastaroko osakin egoki bihurtuko da eta ikasten ari den hizkuntzaren mundura zabalik dagoen leiho gero eta argitsua izango.

Itzultzailea: Boni Urkizu

LA UTILIZACION DEL VIDEO EN LA CLASE DE LENGUA

El profesor de lengua que tenga acceso a un video cuenta con una de las mejores oportunidades existentes para mostrar, en un contexto viviente, la lengua que está enseñando. Con él puede proporcionar a sus estudiantes la oportunidad de asomarse no sólo al mundo de palabras y de frases que han aprendido, utilizadas de modo real y significativo, sino también observar las diversas señales visuales

de la expresión facial, el movimiento de las manos y del cuerpo tan íntimamente ligados al habla y a la significación.

En este artículo el autor llama la atención sobre algunas de las dificultades que pueden surgir con el equipo y su utilización, describe un posible sistema para introducir el video a los estudiantes y sugiere algunas ideas y técnicas básicas.

USING A VIDEO PLAYER IN THE LANGUAGE CLASS

The language teacher who has access to a video has one of the best opportunities available to show, in a living context, the language he is teaching. With the video he can provide a window for his students through which they can not only hear the words and sentences they have learnt being used in real, meaningful ways, but see the various visual signals of facial expression,

movements of hands and body that are so closely associated with speaking and meaning.

In this article, the author draws our attention to some of the difficulties that may arise with the equipment and its use, describes a possible approach to introducing the students to video material and suggests some basic techniques and ideas.

L'UTILISATION DU VIDEO AUX COURS DE LANGUE

Le professeur de langue qui aît l'accès au vidéo compte d'une des meilleures opportunités existantes pour montrer, dans un contexte vivant, la langue qu'il enseigne. Avec le vidéo il peut proportionner à ses étudiants l'opportunité de commencer à découvrir non seulement le monde des mots et des phrases qu'ils ont appris, utilisés dans un contexte réel et significatif, mais aussi d'observer les diffé-

rents signaux visuels de l'expression faciale, les mouvements des mains et du corps, si profondément liés à la parole (habla) et à la signification.

Dans cet article, l'auteur attire l'attention sur quelques difficultés qui peuvent surgir de l'équipe et de son utilisation; il décrit un possible système d'introduction au vidéo pour les étudiants et suggère des idées et des techniques fondamentales.